

KALEKO ANTZERKI & ARTEEN JAIALDA
BILBOKO

KALEALDIA

FESTIVAL DE TEATRO & ARTES DE CALLE
20

UZTAILAK
1-7
JULIO



MALABAR

ARTE



DANZA

GLOWN



MUSIKA

CIRCUS



B

Bilbao

BABESLEAK :



LAGUNTZAILEAK :



HEMENGO BAZKIDEA DA:



UZTAILA

ASTELEHENA 1

	CASILDA ITURRIZAR PARKEA
11:00	MYSTÉRIEUSES COIFFURES (Euskal Herria: Iparraldea) Un peu bohème (Egun guztia)
11:00	BANDAKADABRA MARCHING BAND (Italia) Figurini (45')
11:45	DOCTEUR TROLL CIE (Frantzia) Pépé (40)*
12:45	DOCTEUR TROLL CIE (Frantzia) Pépé (40)*
17:00	BONI eta JUAN PALOMO (Euskal Herria) (4 ordu)
17:15	BANDAKADABRA MARCHING BAND (Italia) Figurini (45')
17:30	TRAMAKATRAKA (Euskal Herria) Tailerrak (3 ordu)
17:30	DOCTEUR TROLL CIE (Frantzia) Pépé (40)*
18:00	TRAMAKATRAKA (Euskal Herria) Matraka ma non tropo (50')
18:30	BRUNETTE BROS (Danimarka) Circus (70)*
18:30	DOCTEUR TROLL CIE (Frantzia) Pépé (40)*
19:00	EFLIRKOA COLLECTIF (Euskal Herria: Iparraldea) Echos (25')
19:30	DOCTEUR TROLL CIE (Frantzia) Pépé (40)*
20:00	BANDAKADABRA MARCHING BAND (Italia) Figurini (45')
20:30	DOCTEUR TROLL CIE (Frantzia) Pépé (40)*
21:00	BRUNETTE BROS (Danimarka) Circus (70)*
21:15	SOLFASIRC (Frantzia-Katalunia) Dékoncert (55)**
	ARRIAGA PLAZA
22:30	BIVOUAC CIE (Frantzia) Perceptions (60')

*Gonbidapena behar duen ikuskizuna. Casilda Iturrizar parkean eskuratu daitezke (gehienez bi pertsona bakoitzeko) goizez 11:00etatik aurrera eta arratsaldez 17:00etatik aurrera.

MARTITZENA 2

	CASILDA ITURRIZAR PARKEA
11:00	MYSTÉRIEUSES COIFFURES (Euskal Herria: Iparraldea) Un peu bohème (Egun guztia)
11:30	DOCTEUR TROLL CIE (Frantzia) Pépé (40)*
12:30	DOCTEUR TROLL CIE (Frantzia) Pépé (40)*
17:00	BONI eta JUAN PALOMO (Euskal Herria) (4 ordu)
17:15	BANDAKADABRA MARCHING BAND (Italia) Figurini (45')
17:30	TRAMAKATRAKA (Euskal Herria) Tailerrak (3 ordu)
17:30	DOCTEUR TROLL CIE (Frantzia) Pépé (40)*
18:00	TRAMAKATRAKA (Euskal Herria) Matraka ma non tropo (50')
18:30	BRUNETTE BROS (Danimarka) Circus (70)*
18:30	DOCTEUR TROLL CIE (Frantzia) Pépé (40)*
18:45	SOLFASIRC (Frantzia-Katalunia) Dékoncert (55)**
19:00	HORTZMUGA TEATROA (Euskal Herria) Jule (50')
19:30	DOCTEUR TROLL CIE (Frantzia) Pépé (40)*
20:00	BANDAKADABRA MARCHING BAND (Italia) Figurini (45')
20:30	DOCTEUR TROLL CIE (Frantzia) Pépé (40)*
21:00	BRUNETTE BROS (Danimarka) Circus (70)*
21:15	SOLFASIRC (Frantzia-Katalunia) Dékoncert (55)**
	ARRIAGA PLAZA
22:30	MUMUSIC CIRCUS (Katalunia) Flou Papagayo (50')

**Sarrera 3 €. Areatzan dagoen Jaialdiko Informazio Bulegoan eskuratu daitezke uztailaren Tetik 3ra (11:30-14:00 / 17:00-21:00) edo Casilda Iturrizar Parkean (17:00-21:00). Batutako dirua ASPACE-BIZKAIA elkarlari dohaintza emango zaio.

UZTAILA

EGUAZTENA 3

	CASILDA ITURRIZAR PARKEA
11:00	MYSTÉRIEUSES COIFFURES (Euskal Herria: Iparraldea) Un peu bohème (Egun guztia)
11:30	DOCTEUR TROLL CIE (Frantzia) Pépé (40')*
12:30	DOCTEUR TROLL CIE (Frantzia) Pépé (40')*
17:00	BONI eta JUAN PALOMO (Euskal Herria) (4 ordu)
17:15	MANEZ ETA KOBREAK (Euskal Herria: Iparraldea) Manez eta kobreak (45')
17:30	TRAMAKATRAKA (Euskal Herria) Tailerrak (3 ordu)
17:30	DOCTEUR TROLL CIE (Frantzia) Pépé (40')*
18:00	TRAMAKATRAKA (Euskal Herria) Matraka ma non tropo (50')
18:30	BRUNETTE BROS (Danimarka) Circus (70') *
18:30	DOCTEUR TROLL CIE (Frantzia) Pépé (40')*
19:00	MALAS COMPAÑÍAS ZIRKO TALDEA (Euskal Herria) Prozak (50')
19:30	DOCTEUR TROLL CIE (Frantzia) Pépé (40')*
20:00	MANEZ ETA KOBREAK (Euskal Herria: Iparraldea) Manez eta kobreak (45')
20:30	DOCTEUR TROLL CIE (Frantzia) Pépé (40')*
21:00	BRUNETTE BROS (Danimarka) Circus (70')*
21:15	SOLFASIRC (Frantzia-Katalunia) Dékoncert (55')**
	ARRIAGA PLAZA
22:30	VAIVÉN CIRCO (Andaluzia) Esencial (55')

EGUENA 4

	ARRIAGA ANTZOKIAREN ALBOAN
18:00	MAGIK FABRIK CIE (Frantzia) Incognito (50')
	AREATZA
18:45	CIRQUE ROUAGES (Frantzia) Boate (45')
	EPALZA KALEA (Frantziako Institutuaren ondoan)
19:00	BIGBINÔME COLLECTIF (Frantzia) Saut (35')
	PLAZA BARRIA
19:30	PUÉRIL PÉRIL (Frantzia) Bankal (50')
	SANTIAGO PLAZA
20:15	BARSANTI CIA (Euskal Herria) Kale gorrian (60')
	ARRIAGA ANTZOKIAREN ALBOAN
20:30	MAGIK FABRIK CIE (Frantzia) Incognito (50')
	AREATZA
21:15	CIRQUE ROUAGES (Frantzia) Boate (45')
	PLAZA BARRIA
22:00	PUÉRIL PÉRIL (Frantzia) Bankal (50')
	ARRIAGA PLAZA
23:00	DEFRACTO CIE (Frantzia) Flaque (60')

*Gonbidapena behar duen ikusizuna. Casilda Iturrizar parkean eskuratu daitezke (gehienez bi pertsona bakoitzeko) goizez 11:00etatik aurrera eta arratsaldez 17:00etatik aurrera.

**Sarrera 3 €. Areatzan dagoen Jaialdiko Informazio Bulegoan eskuratu daitezke uztailaren 1etik 3ra (11:30-14:00 / 17:00-21:00) edo Casilda Iturrizar Parkean (17:00-21:00). Batutako dirua ASPACE-BIZKAIA elkarteari dohaintzan emango zaio.

UZTAILA

BARIKUA 5

	ARRIAGA ANTZOKIAREN ALBOAN
18:00	LOS MOÑEKOS (Katalunia) We-ding! (20')
	AREATZA
18:30	BIGBINÔME COLLECTIF (Frantzia) Saut (35')
	ARRIAGA ANTZOKIAREN ALBOAN
19:15	MARKELIÑE (Euskal Herria) Chef natura (50')
	PLAZA BARRIA
20:15	THE FUNES TROUP (Euskal Herria) Aukerak (45')
	ARRIAGA ANTZOKIAREN ALBOAN
21:15	LOS MOÑEKOS (Katalunia) We-ding! (20')
	AREATZA
21:45	BIGBINÔME COLLECTIF (Frantzia) Saut (35')
	AREATZAKO KAIA
22:30	CIRQUE HIRSUTE (Frantzia) Les Butors (50')
	ARRIAGA PLAZA
23:30	DEABRU BELTZAK (Euskal Herria) Symfeuny (45')

ZAPATUA 6

	AREATZA
18:00	FIL D'ARENA DANSA TEATRE (Valentzia) Salt (30')
	PLAZA BARRIA
18:30	DIKOTHOMIA CIA (Euskal Herria) [‘e.go] (55')
	ARRIAGA ANTZOKIAREN ALBOAN
19:30	NATXO MONTERO_Dantza (Euskal Herria) Barbecho urbano (35')
	AREATZA
20:15	FIL D'ARENA DANSA TEATRE (Valentzia) Salt (30')
	AREATZAKO KAIA
20:45	CIRQUE HIRSUTE (Frantzia) Les Butors (50')
	PLAZA BARRIA
21:45	DIKOTHOMIA CIA (Euskal Herria) [‘e.go] (55')
	ARRIAGA ANTZOKIAREN ALBOAN
22:45	NATXO MONTERO_Dantza (Euskal Herria) Barbecho urbano (35')
	ARRIAGA PLAZA
23:30	DEABRU BELTZAK (Euskal Herria) Symfeuny (45')

DOMEKA 7

	AREATZA
12:00	TEATRO DUE MONDI (Italia) Come crepe nei muri / Wall cracks (60')
	ARRIAGA PLAZA
13:30	HORTZMUGA TEATROA (Euskal Herria) Bidaia (60')



BANDAKADABRA MARCHING BAND (Italia)

"Figurini" - Musika (45). Adin guztietakoentzat.

Musika ona, talentua, umorea eta klase italiarra ederto nahastuta! Festarako sen paregabera du talde honek. Errepertorio oparoa dauka, Balkanetatik jazzera, klezmeretik, dixietik, jamaikar rocketik eta swing latinoetik pasatuz. *Bandakadabra* kaleko musika-talde baten energia eta haize-orkestra handi baten zehaztasun musikala uztartzeko gai da. Europa osoan zehar bidaiatu dute hamar urtetik gora, ikuskizun originala eskainiz. Antzerkiko inprobisazioa eta bikaintasun musikala bateratzen dituzte.

www.bandakadabra.org

ASTELEHENA 1	11:00 / 17:15 / 20:00	CASILDA ITURRIZAR PARKEA
MARTITZENA 2	17:15 / 20:00	

BARSANTI CIA (Euskal Herria)

"Kale gorrian" - Kaleko antzerkia (60). Adin guztietakoentzat.

Aitona-amona bikote bat etxerik gabe geratzeaz dago. Ezkondu ondoren erosi zuten pisua betirako uzteko unea iritsi da. Polizia beren balkoiaren azpian dago, gunea inguratuta dute eta epailearen agindua betetzeko prest daude. Auzokideak etxe inguruan batu dira, egoera horren lekuko izan eta, beharbada, kezatzeko. Marinok ez du etxetik joateko asmorik, amaierara arte gogor eutsi nahi du. Begoñak, bestalde, nahiago du egoera horrekin lehenbailehen amaitu, baina ez ditu bere gauzak etxe barruan utzi nahi. Auskalo bankuek zertarako erabiliko dituzten! Justizia egingo al da?

www.ciabarsanti.com

EGUENA 4	20:15	SANTIAGO PLAZA
-----------------	--------------	----------------



Ian Gandjean

BIVOUAC CIE (Frantzia)

“Perceptions” - Zirkua (60'). 6 urtetik gorakoentzat.

Colin fisika kuantikoko ikertzailea da eta irrealtasun modu bati aurre egin behar dio. Osotasunaren teoriarekin tematuta dago, eta horrek talka egiten du dimentsio paraleloetan edo aldi bereko dimentsioetan bidaiatu ahal delako ideia zoroarekin. Bera desagertutako emaztearen bila ari da. Bere ingurunea mugitzen ari den makina erraldoi bat da: “Begia”. Makina honek logika kuantikorantz joatera animatzen du: hainbat dimentsio atzematen ditu aldi berean, gertaerak modu konplexuan jazotzen dira, norbait begira egoteak ekintza baldintzatzen du, etorkizunak orainean eragiten du. Eta “haratago” bilatzen du. Fisikatik haratago, bizizatik haratago, bere pertzepzioetatik haratago. Zirku-ikusketak garaikidea, zuzeneko musikarekin, zenbait zirkuko teknika gozatu ahal izateko, hala nola eskuz eskukoa eta grabitate-masta, dantza urbanoarekin eta dantza bertikalarekin batuta, mugitzen ari den egitura baten gainean.

www.bivouaccie.com

ASTELEHENA 1

22:30

ARRIAGA PLAZA



BIGINÔME COLLECTIF (Frantzia)

"Saut" - Zirkua (35). Adin guzietakoentzat.

Lau artista gazte maiteminduta daude akrobaziekin eta emozioarekin, taldean jolasten eta mugitzen diren bitartean. Euren emanaldietan, euren ezberdintasunak, euren nortasunak eta arriskua gozatzen dituzte. Akrobazien teknikari esker, jauzi mortal ikusgarriak egiten dituzte edo giza piramide are altuagoak eraikitzen. Muturreko arriskua bilatzen dute. Kuboa erabiltzen dute muga tekniko moduan, publikoa txundituz. *Saut* zirkui-ikusizuna da. Emozioa, birtuosismoa, egonkortasunik gabeko oreka eta adin guzietarako barrea bateratzen ditu.

www.collectifbiginome.wixsite.com/biginome

EGUENA 4	19:00	EPALZA KALEA (Frantziako Institutuaren ondoan)
BARIKUA 5	18:30 / 21:45	AREATZA

@passion-photos-Nanterre



"BONI" eta JUAN PALOMO (Euskal Herria)

Clowna / Zirkua (4 ordu). Adin guztietakoentzat.

Boni eta Juan Palomo kale-animatzaileak dira. Informazio-gunea ere badira, eta euren postuetatik hurbil pasatzen den pertsona bakoitzarekin zuzeneko eta hurbileko harremana sortzen dute, bezeroaren eta publikoaren arteko lerro mehe horretan jostatzen. "Al barqui, barqui, barqui" aldarriarekin, "Boni" bere bonboarekin joango da eta bere erruleta biratuko du, barkillo-kopuru egokia ateratzeko, dena clown dosi on batekin. Juan Palomo, bestetik, bere krispeta-postutik, publikoa gozaraziko du krispetarik gozoenak dastatzeko eta erosteko eskainiz, zirkuarekin eta umore handiarekin onduak, gatz puntu justuarekin.

ASTELEHENA 1

MARTITZENA 2

EGUAZTENA 3

17:00etatik 21:00etara

CASILDA ITURRIZAR
PARKEA



BRUNETTE BROS (Danimarka)

“Circus” - Clowna / Zirkua / Antzerkia (70'). 6 urtetik gorakoentzat.

Ondo antolatutako anabasa. Aurpegi askotako ikuskizuna. Musika-unibertso indartsua eta txotxongilo-antzerki pertsonala. Agertoki ibiltaria eta miniaturako zirkua. Adierazpide finduko pailazoak... *Circus* ez da zirku huts bat. Danimarkako irmotasuna eta hegoaldeko izaera dituen esperientzia bat da. Umorez betetako hizkera propio bat.

*Gonbidapena behar duen ikuskizuna. Casilda Iturrizar parkean eskuratu daitezke (gehienez bi pertsona bakoitzeko) goizez 11:00etatik aurrera eta arratsaldez 17:00etatik aurrera.

<http://www.brunettebros.dk/site.php>

ASTELEHENA 1	18:30 / 21:00	CASILDA ITURRIZAR PARKEA
MARTITZENA 2		
EGUAZTENA 3		

CIRQUE HIRSUTE (Frantzia)

“Les Butors” - Zirkua (50'). Adin guztietakoentzat.

Txoriburu hauek, *Butorsak*, paduretako hegazti misterioitsuak, akrobazia ikusgarriko maitasun-desfilea egiten ari dira. Zazpi metroko altueratik eskegita, eurek asmatutako aparatu baten gainean (eskailera birakari handi bat, deabruaren zaldiko-maldikoa, haize-errotetan eta heriotzaren gurpiletan inspiratua), txori dibertigarri hauek erritual zentzugabeak egingo dituzte. Aereo ikusgarriak, dantza txundigarriak, hegaldi zorabiagarriak eta ezinezko orekak uztartuz.

www.cirquehirsute.com

BARIKUA 5	22:30	ARETZAKO KAIA
ZAPATUA 6	20:45	



CIRQUE ROUAGES (Frantzia)

“Boate” - Zirkua (45). 6 urteik gorakoentzat.

Cirque Rouages ikuskizuna Fabrizio Gattiren *Bilal, por el camino de los clandestinos* lanaren egokitzapena da, migratzaileei buruzkoa. Mugitzen ari diren bi akrobatek kutxa bat daramate bizkarrean, euren iragana bezain astuna eta euren etorkizuna bezain hutsik. Dantzan taxutzen dute euren bidea, indarrez eta itxaropenez beteriko gazteen askatasunarekin, eta euren odisean laguntzera gonbidatzen gaituzte.

www.cirquerouages.wixsite.com/cirquerouages

EGUENA 4

18:45 / 21:15

AREATZA

DEABRU BELTZAK (Euskal Herria)

“Symfeuny” - Musika / Kaleko antzerkia (45). Adin guztietakoentzat.

Ikuskizun honek perkusioaren eta suaren arteko talka iradokitzen du, entzun eta sentitu beharra. Ikuskizun harrigarria, publikoarekin topatzea eta egotea bilatzen duena. Lehenengo zatia ibiltaria da; pirotekniako efektu ikusgarri batekin hasiko da. Gero, agertokian, sei musikari eta piroteknikarik sorkuntza berri honi bizia emango diote, ikuskizun zirrarragarri eta ozen honetan, irudietan eta koreografiatan aberatsa, publikoa harrituko dutenak.

www.deabrubeltzak.com

BARIKUA 5

ZAPATUA 6

23:30

ARRIAGA PLAZA



Pierre Morel



DEFRACTO CIE (Frantzia)

"Flaque" - Zirkua (60). 7 urteik gorakoentzat.

Flaque lanak malabarismo-muntaia berezia eskaintzen dio publikoari. Hemen, giza gorputzak dimentsio berri bat bereganatzen du, diziplinaren garapenaren elementu funtsezkoa izaki. Zenbait eszenaren bidez, hitzik gabeko istorio txikiak, Marinetek eta Longequelek malabarismoarenganako pasioa erakusten dute, gorputz-lengoaia berrasmatzen, muntaia argi batean, "bizitasun, trebezia eta zehaztasun ikusgarriak" erakutsiz. Mimika eta dantza elkartzen dira, mugimenduei forma emateko.

www.defracto.com

EGUENA 4	23:00	ARRIAGA PLAZA
-----------------	--------------	---------------

DIKOTHOMIA CIA (Euskal Herria)

"[e.go]" - Zirkua (55). 9 urteik gorakoentzat.

"[e.go]" zirku-ikusbizuna da, jendea esperientzia iragankor bat gozatzeraz gonbidatzen duena. Pertsona baten barruan bizi diren pertsonaia guztiak ezagutzeko parada. Mazoari idatzitako maitasun-poema, zirkuko adierazpen artistikoko objektua den aldetik. Pertsona bakoitzak bere barruan daukan barne munduaren proiektzioa.

www.dikothomia.net

ZAPATUA 6	18:30 / 21:45	PLAZA BARRIA
------------------	----------------------	--------------



Zoé Dumont

DOCTEUR TROLL CIE (Frantzia)

“Pépé” - Magia (40). 5 urteik gorakoentzat.

Pépé 1914an jaio zen. XX. mendean Frantziako hainbat hiritan zehar ibili zen, saltinbanki baten moduan bizitzen. Gaur, bizitzaren amaieran, ez dirudi erretiroa hartu nahi duenik, baizik eta ikuskizun berri hau aurkeztu. Bere etxearen eta lorategiaren goxoan gonbidatuko du publikoa magia konpartitzera eta oroitzapen zaharrak bizitzera.

*Gonbidapena behar duen ikuskizuna. Casilda Iturrizar parkean eskuratu daitezke (gehienez bi pertsona bakoitzeko) goizez 11:00etatik aurrera eta arratsaldez 17:00etatik aurrera.

<http://dr troll.free.fr>

ASTELEHENA 1	11:45 / 12:45 / 17:30 / 18:30 / 19:30 / 20:30	CASILDA ITURRIZAR PARKEA
MARTITZENA 2		
EGUAZTENA 3	11:30 / 12:30 / 17:30 / 18:30 / 19:30 / 20:30	

EFIRKOA COLLECTIF (Euskal Herria - Iparralde)

“Echos” - Dantza / Musika (25). Adin guzietakoentzat.

Echos lanak gizakiak hirian duen lekua zalantzatan jartzen du. Metropolia bor-bor dago. Pertsonak korrika dabilta, elkar aurkitzen eta ukitzen dute, elkar ikusi gabe. Hiriaren oihartzunek biratzen dute eta gure biziak apurtzen dituzte. Iskanbila honetan, burbuila bat lehertzen da... Denbora eten egiten da... Arnasketak eta larruazala laztantzen duen haize leunak zentzumenak pizten dituzte... Erritmo bat esnatzen da eta dantzara bultzatzen gaitu. Beraz, geure keinuekin, zirkulu bat partekatzen dugu pozen eta topaketen oihartzunekin.

Proiektu irabazlea KARRIKAN Plataforma hirugarren laguntza deialdiaren barruan.

www.efirkoa.wixsite.com/efirkoa

ASTELEHENA 1	19:00	CASILDA ITURRIZAR PARKEA
---------------------	--------------	--------------------------



FIL D'ARENA DANSA TEATRE (Valentzia)

“Salt” - Dantza / Antzerkia / Zirkua (30). Adin guzietakoentzat.

Konpainia honen apustua gure mendebaldeko gizarte honen pasibotasuna aztoratzea da. Bizitza hobea aurkitzeko esperantzarekin etxetik alde egiten duten emigranteen baldintza gogorrek markatutako testuinguruaz azzaltzen du. *Salt* diziplina askotako proposamena da. Hemen, interpreteen lengoia fisikoak eta sortzen diren irudiek gogoeta egitera gonbidatzen gaituzte, emakumeek ibilbide honetan daukaten egitekoaren inguruan. Hiru emakume agertokian, indarra eta sentsibiltatea konbinatzen, dantza akrobatiko eta arriskutsuaren bidez.

www.fildarena.net

ZAPATUA 6

18:00 / 20:15

AREATZA

HORTZMUGA TEATROA (Euskal Herria)

“Jule” - Kaleko antzerkia (50). Adin guzietakoentzat.

Eraikuntza bat eraistear eta bertako biztanle batek handik ateratzeari uko; izan ere, ametsa, edo hobe esanda, hainbat amets bete gabe ditu oraindik. Eraikuntza-lanetako zaindaria, aldir, familia ezaren hutsuneak jota, ametsetan ernai; eta neskatoak, bilobak, familia zeharo ahaztuta, dagoeneko ametsetan ere ez daki. Konpondu beharreko katramila edo eta amets egiteko aukera paregabea; galdutako maitasuna berreskuratzeko eta ametsak gogoz amestu behar direla sekula ez ahazteko aitzakia, direnak direla ere eta ezinezkoak diruditen arren. Amestu dezagun beti gogoz, begiak zabalik eta ernai

www.hortzmuga.com

MARTITZENA 2

19:00

CASILDA ITURRIZAR PARKEA

Bidaia

El viaje / The journey / Le voyage / Die reise



hortzmuga
teatroa

HORTZMUGA TEATROA (Euskal Herria)

“Bidaia” – Kaleko antzerkia (60'). 16 urtetik gorakoentzat.

Bizitza bidaia da. Bidaia luzea, oztopoz bete. Oztopo horiek gainditu behar ditugu, askatasunez bizitzen jarraituko badugu. Hormen gainetik salto egiten dugu. Ikusten diren hormen gainetik eta ikusten ez diren gainetik. Baina harriak ere bagara bidean, batzuentzat eta besteentzat hormigoizko hormak sortzen dituztenak. Hormak buruan baiitugu: pentsamenduetan eta anbizioetan. Ikuskizun hau eguneroko bizipen bat da, errealitate bat. Batzuek ihes egiten duten bitartean, beste batzuk parrandan daude; batzuek oihu egiten duten bitartean, beste batzuek, barre; batzuek erosten duten bitartean, beste batzuek euren burua saltzen dute. Bizitza negozioa da, eta denok parte hartzen dugu. Proposamen honen bidez, *Hortzmuga Teatroak* kale-antzerkia gizarteaz hausnartzeko erabiltzen du. Herritarrek artea izango dira. Funtzioaren atal bat izango dira, funtsezkoa. Agertokia, berriz, espazio publiko eta demokratiko bat izango da: kalea. Sortze prozesuan zehar jasotako migratzaile eta errefuxiatuen bizipenetatik eta kontakizunetatik abiatuta, formatu bizi eta ezberdina sortuko dugu ikuskizuna antzeztzen den leku bakoitzean. Ikus-entzuleak izango dira aktore nagusiak, eta pertsona bakoitzak bere bidea hautatuko du.

***Ikuskizun honek Mauerspringer-Wall Jumpers
Project europar proiektuko diru-laguntza jaso du.***

www.hortzmuga.com

DOMEKA 7

13:30

ARRIAGA PLAZA



Tristán Pérez Martín

LOS MOÑEKOS (Katalunia)

“We-Ding” - Dantza / Kaleko antzerkia (20). Adin guztietakoentzat.

Denok gonbidatuta zaudete; ez dago konfirmatu beharrik. Hitzordua herriko elizaren aurrean izango da, puntako orduan. Arroza ekarri, ez ahaztu! Ai! eta, batez ere, esaiozue Marianori berandu ez etortzeko, mesedez! Bi emaztegaik egin dute topo, aurrez aurre, biak zuriz jantzita, eliza berean. Mariano esan duzu? Bai ba... biak pertsona berberarekin ezkontzekoak dira: Marianorekin. Lokatzetako borroka? Ez, bi emaztegai baino ez dira, senargai berberengatik borrokan. Reggaeton erritmoan, galtzari-eustekoa eta paramenta jantzita, bi emaztegai bizardun hauek harrapakinagatik borrokatuko dira... egongo al da ezkontzarik?

www.losmonekos.com

BARIKUA 5

18:00 / 21:15

ARRIAGA ANTZOKIAREN ALBOAN



MAGIK FABRIK CIE (Frantzia)

“Incognito” - Clowna (50). 6 urtetik gorakoentzat.

Bi tentel dira. Zikin daude eta ez daukate ezer. Mundua begi gaiztoz ikusten dute. Ezkutuan daude hor. Eta zu ere hemen zaudenez, gozatu egingo dute. Kutxa zaharrekin, soka zatiekin eta umeekin dibertituko dira, umerik baldin badago. Marmartiak eta barregarriak, tontoak baina maltzurak, autoritateari eta jabetzari barre egiten diete, eta munduaren asperdura eramangaitza asaldatuz dibertitzen dira.

www.magikfabrik.com

EGUENA 4

18:00 / 20:30

ARRIAGA ANTZOKIAREN ALBOAN



MALAS COMPAÑÍAS ZIRKO TALDEA (Euskal Herria)

“Prozak” - Zirkua (50). 4 urtetik gorakoentzat.

Batere ohikoa ez den familia baten bitartez, egoera burugabez beteriko unibertsoan murgilduko gara, oharkabean familia horren parte bihurtu arte. Antidepressibo osasuntsu eta eraginkorra dakarkizuegu: barrea eta emozioa. Gure *Prozak* propioa pilula ikusgarrian.

www.malaskompanias.com

EGUAZTENA 3

19:00

CASILDA ITURRIZAR PARKEA



MANEZ ETA KOBREAK (Euskal Herria - Iparraldea)

“Manez eta kobreak” - Musika (45). Adin guzietakoentzat.

Manez, Thierry Biscaryren izen artistikoa da. Talde ezberdinetan, *Kalakan* besteak beste, kantatu ondoren, bere kantuak aurkezten dizkigu. Lekukoitasun inimo bat eskainiz, bere ahaide, auzokide, adiskide edo ezagun batzuen bizi partearik kontatzen ditu, olerkari eta bertsolari batzuen idazkiz abiapuntu. Metalezko musika jotzaileak, kobreak jotzeaz gain kantariak ere badira. Denak nomadak bihurtu dira eta batzuek ofizio berri bat hartu dute. Taldearen musika tradizioan oinarritzen da eta,aldi berean, doinu berrien freskotasuna eta txistukatzen diren kantuen bizitasuna dauka. Haizezko instrumentuak eta ahotsak uztartuz, kondaira eta istorioen bidez, sentikortasunezko Euskal Herri poetiko bat, egiazkoa eta asmatutakoa, deskubrituko dugu.

www.manez.bandcamp.com/album/manez-eta-kobreak

EGUAZTENA 3

17:15 / 20:00

CASILDA ITURRIZAR PARKEA



MARKELIÑE (Euskal Herria)

“Chef Natura” - Kaleko antzerkia (50). 6 urtetik gorakoentzat.

Nolako harremana dugu teknologiarekin? Badaukagu jada mendekotasuna pantailatxo batekin, arreta guztia exijitzen digun eta gure ingurune naturalek urruntzen gaituen pantailatxo horrekin? Jatetxe itxurako espazio utopiko batean, chefak eta maitreak aldarrikatzen dute naturarekiko idilioa bezeroen aurrean; horiek gailu teknologikoak erabiltzearen ondoriozko nolabaiteko nahasmenduaren sintomak agertzen dituzte euren jarrera eta jokabideetan. Jatetxeko mahai batera daudela, bien arteko elkarreraginak sortzen du istorio honen haria.

www.markeline.com

BARIKUA 5

19:15

ARRIAGA ANTZOKIAREN ALBOAN



MUMUSIC CIRCUS (Katalunia)

“Flou Papagayo” - Dantza (50). 5 urtetik gorakoentzat.

Hiru izaki sentikor eta kaotiko doaz erromesaldian, zirku-pista unibertsal batean biraka eta biraka, betiko. Emozioak eta partekatzearen zirrara dira bidaia bitxi honen akuilua. Bakoitzak bestea konbentzitu du berak ere ez dakien zerbaitez. Izan ere, *Flou Papagayo* ezin da jakin, bakarrik sentitu. *Mumusic* zirku-konpainiaren lengoia eta estilo hain plurala sailkatzeko zailak dira. *Flou Papagayo* sormenerako erronka berria da.

www.mumusiccircus.com

MARTITZENA 2

22:30

ARRIAGA PLAZA



MYSTÉRIEUSES COIFFURES (Euskal Herria - Iparralde)

“Un peu bohème”- Instalazioa (egun guztia). Adin guztietakoentzat.

Mystérieuses Coiffures konpainiak bere fantasiazko mundura eramango gaitu. Konpainia honek giroak sortzen ditu, eta oraingoan Casilda Iturrizar parkea dekoratu bihurtuko du. Publikoa ametszko unibertsoetan murgilduko da. Konpainiaren lana kontrabandistenaren antzekoa da: istorioen, emozioen, jakintzaren eta ametsen kontrabandistak dira! Parkean zenbait giro ikusiko ditugu:

- *Festaren mundua.* Dena koloretsu eta jolasteko aitzakia.
- *Loreen mundua,* “ile-apaintzaile zoroak” sortzen dituen landarezko orrazkeretan zehar, eta sorkuntza-tailerrak, espazioa lorez apaintzeko...
- *Leuntasunaren, lasaitasunaren eta baretasunaren mundua.* Edonor geratu, etzan eta amets egin ahalko du, “burua hodeietan”...

www.mysterieusescoiffures.com

ASTELEHENA 1	11:00	CASILDA ITURRIZAR PARKEA
MARTITZENA 2		
EGUAZTENA 3		



NATXO MONTERO Dantza (Euskal Herria)

“Barbecho urbano”- Dantza (35). Adin guztietakoentzat.

Kale-mugimenduko pieza. Lurra itxarotearen eta ziklo berri batean sartzearen metafora gisa planteatzen du. Lugarri egoerak presa eta betebeharrak ahaztea dhalbidetzen digu. Egoteko unea da, zerbait gertatu arte itxaroteko. Lugarria atsedena da, aldaketaren beharra, oxigenazioa, indarberrituta irteteko eta berriro ere egunerokoari aurre egiteko premia. Aisia jolasa da. Eta jolasa arimaren lugorria da.

<http://natxomonteroDantza.blogia.com>

ZAPATUA 6

19:30 / 22:45

ARRIAGA ANTZOKIAREN ALBOAN



PUÉRIL PÉRIL (Frantzia)

“Bankal” - Zirkua (50). Adin guztietakoentzat.

Bi mutil hauek eraikuntzan daude. Teknika berritzaile bat asmatu dute: aldamio oso egokigarriak, tabureteekin osatuak. Eraikitzaileak dira eta, euren etsipenean, oso altuera handietara iritsi dira, zorabioa sentiitzeraino. Prozesu hau probaldian dago oraindik, baina zeharo abangoardista da. Amaituko ote dute? Jakina!

www.puerilperil.com

EGUENA 4

19:30 / 22:00

PLAZA BERRIA



SOLFASIRC (Frantzia-Katalunia)

“Dékonzert” - Zirkua / Musika (55). 6 urtetik gorakoentzat.

Hipolito Handia musikari dohatsua baina bakarria da. Ez du gaitasunik beste gizaki batzuekin komunikatzeko. Erabat megalomanoa da. Agertokira iritsi da. Gerard haren laguntzaile fidela da; mugarik gabeko irudimena du eta Hipolitoren eskaera guztiei erantzun behar die, kontzertua ondo emango badu. Zenbait istripu gertatuko dira eta publikoak bikote harrigarri bat deskubrituko du. Ikuskizun honetan musika eta zirkua arteak elkartzen dira. Artista bakoitzak bere sormenaren mugak gaindituko ditu eta bata bestearen unibertsosan sartu. Kontzertu berezi, txundigarri, berritzaile, dibertigarri eta hungigarria.

**Sarrera 3 €. Areatzan dagoen Jaialdiko Informazio Bulegoan eskuratu daitezke uztailearen Tetik 3ra (11:30-14:00 / 17:00-21:00) edo Casilda Iturrizar Parkean (17:00-21:00). Batutako dirua ASPACE-BIZKAIA elkarteari dohaintzan emango zaio.

www.solfasirc.org

ASTELEHENA 1	21:15	CASILDA ITURRIZAR PARKEA
MARTITZENA 2	18:45 / 21:15	
EGUAZTENA 3	21:15	

TEATRO DUE MONDI (Italia)

“Come crepe nei muri / Wall cracks” - Kaleko antzerkia (60). Adin guztietakoentzat.

Ezjakintasunak hormak eraikitzen ditu, baina jakintzak eraitsi ditzake. Horregatik, antzerkia konponbideak bilatzeko tresna da, politikariek soluziorik aurkitzen ez dutenean. *Wall Cracks* lanak egunero harriz eta hesiz eraikitzen diren hormez eta mugez hitz egiten du. Gainditzen ezinezkoak diren hormez. Baina baita norbanakoen mugez eta pertsonen arteko hormez, beldurrez

Ikuskizun honek Mauerspringer-Wall Jumpers Project europar proiektuko diru-laguntza jaso du.

www.teatroduemondi.it

DOMEKA 7	12:00	AREATZA
-----------------	--------------	---------



THE FUNES TROUP (Euskal Herria)

“Aukerak” - Zirkua (45). Adin guztietakoentzat.

Nora zoazen dakizunean... argi daukazu zuk aukeratutako bidetik zoazela? Ala eraman zaitzaten uzten duzu? Gure erabakietatik, zenbat dira guk geuk hartutakoak eta zenbat dira errutinak eragindakoak? Zirku-ikuskizun bat bizitzako erabakiei eta joanekoa baino ez den bidaiaren batean aukeratu behar dituzun bideei buruz.

www.thefunestroup.com

BARIKUA 5	20:15	PLAZA BARRIA
------------------	--------------	--------------

TRAKAMATRAKA (Euskal Herria)

“Matraka ma non tropo” - Musika (50). Adin guztietakoentzat.

Jazz erritmoan dantzaten duten mahukak, didgeridoo bihurtzen diren jogurtak, jota maite duten maionesa-tapak, “azenariofonoak”, afrikar erritmoz betetako kuboak, melodia kutsakorrak darizkien hodiak... Hori guztia aurkituko dugu ikuskizun honetan: musika eta birziklatzea, sormena eta irudimena, musika-dibertsitatea eta ingurumenarenganako errespetua. *Trakamatrakak* musika modu atseginean hurbilduko digu, eta erakutsiko digu birziklatzea mundu hobe batera joateko bidea dela. Proiektu honetan, gure gizarteak nahi ez dituen gauzak eraldatuko ditugu, eta musika-tresna zoragarriak sortu.

www.trakamatraka.com

ASTELEHENA 1	18:00	CASILDA ITURRIZAR PARKEA
MARTITZENA 2		
EGUAZTENA 3		



TRAKAMATRAKA (Euskal Herria)

“Tailerrak” - Musika (3 ordu). Adin guztietakoentzat.

Material birziklatuak edo etxean egunero erabiltzen ditugunak baliatuz, musika tresnak egiten hasiko gara. Tresnen funtzionamendua eta tresnen erabilera ikasi eta ulertuko ditugu. Tailer hau ez da musika jarduera soila, baizik eta trebetasuna, irudimena, ingurumen kontzientzia eta sormena lantzeko bitarteko bat. Modu atseginean, musika-tresnen familiak ezagutuko ditugu: aerofonoak, membranofonoak, idiofonoak edo kordofonoak kasu. Nola dabilzan ikusiko dugu, eta beraien printzipio akustikoak ikasi.

www.trakamatraka.com

ASTELEHENA 1	17:30	CASILDA ITURRIZAR PARKEA
MARTITZENA 2		
EGUAZTENA 3		

VAIVÉN CIRCO (Andaluzia)

“Esencial” - Zirkua (55). Adin guztietakoentzat.

Esencial ikuskizunak trantsizioez hitz egiten digu. Historian zehar, gizakiak bere burua berriro du, aurrera egin ahal izateko. Azaldu ezin duguna eta ezagutzen ez duguna kaotikoa edo nahasia dela uste ohi dugu; baina, gehienetan, arazoa da ez dugula benetan ulertzen zer gertatzen ari den. Produkzio berri honetan, *Vaivén* konpainiaren abiapuntua izango da hasierako aldatuta txikiak aldatuta handiak ekar ditzaketela behin betiko emaitzan. Sarritan ez gara jabetzen gure erabakietan edozein txikikeriak emaitza erabat ezberdina ekar dezakeela.

www.vaivencirco.com

EGUAZTENA 3	22:30	ARRIAGA PLAZA
-------------	-------	---------------